

Udako Liburutegiak martxan Bilboko bi igerilekutan

REDACCIÓN /BILBAO

Bilboko Udal Liburutegi Sareak Udako Liburutegiak Programaren XI. edizioa jarriko du martxan bihar Txurdinagako eta Fangoko igerilekuetan. Ekimen honen helburua liburuak eta aldizkariak guztien esku jartzea da eta irakurketa sustatzeko jarduerak burutuko dira, batez ere umeei zuzenduta. Eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 19:30etara bitartean egongo dira zabalik.

Programa honen bitartez, irakurketa zerbitzua eskainiko da, eta horretarako liburuak, eguneroko prentsa eta aldizkariak jarriko dira guztien esku. Gainera, igerileku horietan liburuen mailegu zerbitzua ere erabili ahal izango da. Modu horretan, irakurleek etxera eraman ahal izango dituzte interesatzen zaizkien liburuak, aisia gunean bertan ezarriko den epearen barruan itzultzeko baldintzarekin.